

EROSKI-CECOSA

Zapaldu eta arrazializaturiko langileen ahotsa



IZAN TA ESAN

013 | 2024ko uztaia

**MANU
ROBLES
ARANGIZ**
FUNDATZIOA

EROSKI-CECOSA

Zapaldu eta arrazializaturiko langileen ahotsa

AURKIBIDEA

| | |
|---|----|
| 1. SARRERA | 3 |
| 2. PREKARIOTIK, PREKARIOAGORA | 4 |
| 3. ANTOLAKUNTZARAKO LEHEN URRATSAK | 6 |
| 4. HAUTESKUNDE SINDIKALAK | 10 |
| 5. AFILIAZIO NAHIKOA IZATEKO BEHARRA | 12 |
| 6. GREBARAKO ALDARRIKAPENAK | 14 |
| 7. GREBARAKO DATA ERAGINKORRENAK | 15 |
| 8. ENPRESAREN JAZARPENA ETA MEHATXUAK | 16 |
| 9. GABON BEZPERAN, BILTEGIA GELDI | 20 |
| 10. GREBA AKORDIOA | 26 |
| 11. GARAIENERAKO TRESNAK | 30 |

Izan ta Esan 13
2024ko uztaila

fundazioa@ela.eus
[@mrafundazioa](https://www.mrafundazioa.eus)
www.mrafundazioa.eus



MANU ROBLES-ARANGIZ
FUNDAZIOA

Fotokonposizioa: Edorta
Inpresioa: Bilbograf

1 Sarrera

CECOSAko langileek bide sindikal oparoa egin dute azken bi urteetan. Argitalpen honetan ibilbide honen historia jaso dugu, langileek prekaritatearen aurka nola borrokatu duten eta ELA sindikatuan nola antolatu diren kontatzeko. Afiliatorik ia ez zen plantilla izatetik, haietako asko ELAn afiliatu, hauteskunde sindikalak antolatu, gehiengo lortu, batzarrak egin, lan baldintzen hobekuntza aldarrikatu, 5 eguneko greba egin eta lan baldintzak asko hobetzen dituen greba akordioa eskuratu dute.

“Bertakotasuna” bere markarekin lotzen duen bertoko kooperatiba da EROSKI. Elorrion duen biltegian, biltegiko lan nekezena egiteko, langileak zuzenean kontratatu ordez, CECOSA enpresaren bitartez azpikontratatu dituen dituen. Jatorri atzerritarreko gizonez osaturiko plantilla, nagusiki: 130 langileen artean %70a pertsona migratuak eta lau emakume baino ez.

Almazenean, alde batetik, EROSKIko kooperatibistek lan egiten dute, lan baldintza nabarmen hobegotan. Beste aldetik, CECOSA kontratatuta dituen 130 langileak. Batzuek zein besteek leku berean lan egiten duten arren, CECOSAko langileek askoz baldintza okerragoak dituzte: fisikoki askoz gogorragoak diren lanak egiten dituzte baldintza gogorragoetan. Bestela esanda, EROSKIko kooperatibistek egiten ez dituzten lan nekezak egiten dituzte.

Biltegian produktu ez-freskoak gordetzen dituzte, handik gero EROSKIren saltokiak hornitzeko. Kargatu, deskargatu, kutxak gora eta kutxak behera. Lasto kilo batek eta burdin kilo batek berdin pisatzen dute, baina almazeneko kutxa guztiek ez dute berdin pisatzen. Pentsua, ura eta xaboiaren kutxak dira denetan astunenak. CECOSAko langileak dira kutxa hauetaz arduratzen direnak.

Esplotazioaren muina CECOSAko langileei aplikatzen zaien lan hitzarmenean dago. Lokaltasunaz eta bertokotasunaz lau haizetara propaganda zabaltzen duen EROSKIk, CECOSAren bidez, ez die langileei bertakoa den lan hitzarmenik aplikatzen. Lan baldintzak Saltoki handietako estatuko hitzarmenak arautzen ditu, prekarizatuz. Estatuko hitzarmenarekin, kilometro zero prekaritatea.

Bere egoera prekarioaz jabetuta eta nazkatuta, ELAra gerturatu ziren eta antolatzeke urratsak ematen hasi ziren. 2023ko abenduan bost eguneko greba egin zuten, eta greba balio handiko akordioarekin itxi zuten. Baina grebaren nondik norakoak ezagutzeaz harago, langileek egindako ibilbidea ulertzeko, denboran atzera egin beharra dago. Zein izan zen lehen harremana sindikatuarekin? Nola izan zen hauteskunde sindikalen prozesua? Enpresarekin izandako bilerak zelakoak izan ziren? Zein eskakizun izan ziren langileak gatazkan inplikatzera eraman zituenak?

Gai guzti hauei buruz hitz egiteko asmoz ELAren Durangoko egoitzan elkartu ginen. Gurekin egon zen, Maialen Hidalgo, Gernika-Durango eskualdeko Zerbitzuak federazioko ELAko arduraduna. CECOSAn ELAk dituen 6 ordezkarietatik, bost egon ziren: Mody, Lucky, Asier, Elias eta Manuel. Seigarren ordezkaria, Jose, baja medikoan zegoen eta ezin izan zuen bileran parte hartu.

Gertutasuna eta konplizitatea nabari ziren Maialen eta ordezkarien artean. Plazera izan zen goiza elkarrekin pasatzea, mahai baten bueltan. Haien bizipenak miresmen handiz aditu genituen.

2 Prekariotik, prekarioagora

Gaur egun CECOSAn dauden langiletako batzuek CECOSarentzat lan egin aurretik, EROSKIk zuzenean kontratatuta lan egiten zuten 2022 baino lehen. Ohikoena zen bata bestearen atzetik lanaldi partzialeko aldi baterako kontratuak pilatzea:

“Lehen behin-behinekoak ginen EROSKIrentzat lanaldi partzialesan, gero kaleratu egiten zintuzten, eta aurrerago berriro hartzen zintuzten. Ahalik eta gehien esplotatzen gintuzten”. Asier

Egoera 2022ko maiatzean aldatu zen, langile hauek EROSKIrentzat behin-behineko egoeran lan egitetik, CECOSArekin kontratu finkoarekin lan egitera igaro zirenean. Aldaketa horrekin, soldatan igoera txiki bat izan zuten arren, lan bal-

dintzen okertze eta estutzea ekarri zuela azaldu digute. Erabakia estrategikoa zen enpresa kooperatibistarentzat, izan ere, lan gogorrenak merkeago azpikontratatu ahal izango zituen aurrerantzean.

EROSKiko lan baldintzak baino askoz okerragoak ezarri zitzaizkien, eta horrekin batera hainbat eskubide galdu zituzten. Egunerokoan nabarmen eragin zien baldintzen okerragotze bat ogitartekoa jateko atsedenaldiaren galera izan zen. Atsedena egin egiten zuten, baina ez ziren lan orduen barruan kontabilizatzen eta galdutako minutu horiek, beraien aste librean berreskuratu arazten zizkien enpresak. Horrez gain, lan-karga areagotu zen eta gaueko txanden ordainsariak ere murriztu ziren.

“Atsedenaldiak galtzeak eta ordainsarien murrizketak gure lan-baldintzak okertu zituen. CECOSA-ra pasatzean, 20 minutuko atsedenaldia galdu genuen eta lanaldia luzatu ziguten hori berreskuratzeko. Gainera, gaueko txanden ordainsariak murriztu zizkiguten eta honek gure diru-sarreretan eragin negatiboa izan zuen. Lan baldintzak okertu egin ziren eta presio eta estres handiagoa jasaten genuen”. Elias



Ekoizpenaren igoera izan zen langileek pairatu zuten beste aldaketa gogor bat. Egunean mugiarazi beharreko kaxa kopurua 720tik 920ra igo zen. Guztira 10-12 tona altxatu behar izaten zituzten, eta honek osasun arazoak eta lesioen area-gotzea ekarri zuen:

“CECOSA-ra pasatzeak gure lan-baldintzak nabarmen okertu zituen. EROSKI-n geundenean, nahiz eta aldi baterako kontratuak izan, lan-baldintzak hobeto zaintzen ziren. CECOSA-ra pasatzean, lan-karga handitu zitzaigun eta atsedenaldiak kendu zizkiguten. Gainera, gaueko txanden ordainsariak ere murriztu zituzten. Egunero 10-12 tona altxatu behar izaten genituen, eta honek gure osasunean kalte handia egin zuen.” Manu

Ekoizpen-erritmoaren igoerak eta lan-baldintzen okertzeak langileen osasunean eragin kaltegarriak izan zituen eta langileek lesioak izaten zituzten maiz.

“Lan-kargaren areagotzeak gure osasunean eragin handia izan zuen. Ekoizpen-erritmoa izugarri handitu zen, eta egunero 920 kutxa altxatu behar izaten genituen. Hau oso gogorra zen fisikoki, eta lesioak maiz izaten genituen. Gainera, atsedenaldirik gabe lan egiten genuenez, nekearen areagotzea eta estresa ohikoak ziren gure artean.” Elias

“Hasieran, EROSKI-n ari ginenean, 720 kutxa altxatzen genituen egunean. CECOSA-ra pasatzean, kopuru hau 920ra igo zen eta honek gure lan-baldintzak izugarri okertu zituen. Kutxen pisua eta kopurua handitu ziren, eta lan erritmo altua mantendu behar genuen. Estres handia jasaten genuen eta lan karga izugarri gogorra zen.” Asier

3 Antolakuntzarako lehen urratsak

Langileak lan baldintzekin kezu ziren aspalditik, baina sindikatuan antolatzea erabaki zuten arte ez zuten benetako aldaketarik lortzeko aukerarik ikusi. 2022 urtean CECOSARA igaro ostean, 2023ko otsailean, lehen aldiz UGT sindikatura hurbildu ziren.



“Hasieran, UGT sindikatuarekin harremanetan jarri nintzen, baina ez nuen konfiantza sentitu. Sindikatuaren erantzuna hotza eta urruna izan zen”. Elias

Lehen kontaktu horrek ez zituen esperotako fruituak eman. Antolatzeko ziztuzten aukerak aztertzen jarraitu zuten, arreta hobea eskainiko zien sindikatu baten bila. Horrela ELA sindikatura nola hurreratu ziren gogoratu dute:

“Nik lehenago ez nuen harremanik izan ELArekin, baina banekien sindikatu bat zela, langilearen alde begiratzen zuena. Eta ez nuen birritan pentsatu. Etorri eta Maialen ezagutu genuen”. Manu

“Ez nuen erantzun zehatzik jaso, eta galdezka jarraitu nuen. Orduan, Manuk (CECOSAko ordezkaria ere) ELAra jotzeko esan zigun. ELAk baduela indarra hemen. Eta halaxe jo genuen sindikatura, Manuk bideratu zigun bilera bat Maialenekin. Aldaketa nabarmena izan zen. Maialenekin lehen bilera egin genuenean, berehala sentitu genuen babesa eta ulermena”. Elias

Hasierako lehen kontaktua gogobetegarria izan zen, eta sindikatuak eskaini zien arreta eta orientazioa ikusita, ELAn antolatzea erabaki zuten. Sindikatuak emandako informazio argiak asko lagundu zien langileei lehen pausu horiek ematen.

“ELA sindikatuarekin bat egiteak gure lan-baldintzak hobetzeko itzaropena eman zigun. Langileen artean batasuna eta elkarlana sustatu zituzten, eta horrek gure borroka indartu zuen. Hauteskunde sindikalak antolatu genituenean, ELA sindikatuak berehala erantzun eta gure aldeko hautagaitza indartu zuen. Honek gure lan-baldintzak hobetzeko konfiantza eta motibazioa areagotu zituen”. Elias

Maialenekin izandako lehen bilera horretan, langileek borrakarako eta antolatzeko gogoia erakutsi zuten. Baina plantilla ez zegoen oraindik sindikalizatuta, ez zegoen apenas afiliatorik, eta Maialenek pausuz pausu joateko beharra ikusi zuten, eta ezer baino lehen biltzarrak egiten hasi beharra zegoen:

“Manu eta Dani etorri ziren. Gogoan dut zer esan zidaten: “130 gara eta kokoteraino gaude. Guztiok afiliatu nahi dugu.” Hor ohartu nintzen, itzela zela. Sindikatuak fitxatuta ez zuten enpresa bat, Elorrión, 130 langilerekin. Batzarrak antolatzen hasi behar genuen, bai ala bai”. Maialen

Labor Notes, AEBtako mugimenduak zerrendaratzen dituen sindikalismoaren gakoetako asko antzematen dira esperientzia sindikal honetan. Baita Jane McAlevey sindikalista eta ekintzaile estatubatuarrak, berriki zendua, *Organizing for power* metodologian jasotakoak ere. Lehenik eta behin, lan-ekipoen funtsezkotasuna: edozein lan-zentro, enpresa edo sektoretan antolakuntza pausoak eman eta sindikalizatzeko lan-ekipoa ezinbestekoa da. Lan ekipoen lanketan, batzarrak giltzarria dira, ez bakarrik kideen arteko harremana lantzeko, baita sindikatuko egitura-arduradunarekin harremana sendotzeko ere.

“Maialenek etxerako lanak jartzen zizkigun bilera bakoitzean. Eta guk egiten genituen”. Elias

“Talde lan oso ona egin dugu”. Manu

Hortaz, Maialen Hildagorekin bildu ostean, hurrengo urratsa, biltegian batzarrak antolatzea izan zen. Bertan, lau txandatan lan egiten zutela kontuan hartuta, hiru batzar egitea lortu zuten. Batzar horietan, eskualdea ondo ezagutzen duen ELAko Industriako liberatu batek ere parte hartu zuen, David Palaciosek. Batzarrak langileen artean elkartasuna sortu eta haien arazoak eta kezkek partekatzeke foro bihurtu ziren.

“Lehen asanbladak antolatzen hasi ginenean, gure artean elkartasun handia sortu zen. Asanbladak oso garrantzitsuak izan ziren gure borrokan, bertan gure ahotsa entzunarazi eta elkarrekin aurrera egiteko aukera izan baikenuen”. Elias

Garbi gogoratzen dituzte ordezkariak lehen biltzar horietan jorratutako gaiak. Aurrerago ikusiko den bezala, biltzarretan atera ziren kezka nagusiek grebara bideratu ziren aldarrikapenekin bat egiten dute:

“Asanbladetan, gure lan-baldintzak aztertu eta hobetzeko moduak bilatzen genituen. Lan-karga handia eta lan-orduen gehiegikeria izan ziren jorratu genituen gai nagusietako batzuk. Baita ere, atsedenaldirik gabe lan egiteak eta gaueko txanden ordainsarien murrizketak gure osasunean zuten eragin handia. Asanbladetan gai hauek sakon aztertu eta irtenbideak bilatzen genituen”. Asier

Hitz gutxitan esanda, lan karga handia, atsedenaldiaren galera, ordainsari gehigarrien murrizketak eta lan osasunarekin lotutako kezkak ziren nagusi bilera horietan.

Labor Notes eta *Organizing for Power* metodologiei erreparatu, aldarrikapenak aukeratzeko orduan baliagarri diren bi irizpide betetzen dira. Batetik, aldarrikapenak plantillako langile gehiengoari eragiten dien eta kolektiboki garrantzitsutzat jotzen diren gaiak dira. Bestetik, lor daitezkeen eta irabazteko aukerak dituzten eskakizunak direlako.

Batzarretan, migratutako langile eta atzerritarren parte-hartzeak funtsezko garrantzia du eta horrela kontatu zigun Afrikako komunitate anglofona ordezkatzen duen kideak:

“Batzarretan parte hartzea oso garrantzitsua izan zen guretzat, batez ere migratutako langileentzat. Askok gara Afrikako komunitatearen partaideak, eta gure ahotsa entzutea eta gure arazoak partekatzea ezinbestekoa izan zen. ELA sindikatuaren laguntzarekin, gure eskubideak defendatu eta lan-baldintzak hobetzeko borrokan aktiboki parte hartu genuen”. Mody



4 Hauteskunde sindikalak

Lehen bileretatik, hauteskunde sindikalak egiteko prest zetozela azaltzen du Maialenek. Horretarako gauza ondo antolatu beharra zegoela gomendatzen zien ordezkariari. Lehendabizi, hauteskundeen aurre-abisuari sostengua emateko sinadura bilketa egiteko helburua ezarri zuten, ahalik eta langile gehienek babesa lortu asmoz. Arrakasta izugarria izan zen:

“80 sinadura inguru bildu genituen. Hauteskunde prozesuak atzean zuten sostengua ikustarazteko. Aurreabisua 80 sinadurekin aurkeztea, itzela izan zen”. Maialen

Behin aurre-abisua eginda, hautagaien zerrenda zehaztu beharra zegoen. Sinadura-zerrendan izena eman zuten langile askok, beldurra sentitu zuten hautagai gisa aurkezteko, eta bederatzi hautagaiko zerrenda hori osatzea nekeza goa izan zen:

“Hautagaitzan nortzuk zihoazen erabaki beharra zegoen. Beldur ziren. Baina era berean argi zuten aurrera jo nahi zutela. Hautagaien artean, txanda guztietako langileren bat egon zedin bermatu nahi zen. Baina batez ere, komunitate ezberdinetako ordezkariak egotea bermatu nahi zen”. Maialen

“Jatorri askotariko langileak gaude. Afrikatik datozenen artean, batzuek frantsesa hitz egiten dute, eta beste batzuek ingelesa. Horregatik daude ordezkarien artean Mody, nigeriarra eta Luchy senegaldarra, Afrikako bi komunitate hizkuntza ezberdinak ordezkatu ahal izateko”. Elias

Zentzu honetan, oso erabakigarria izan zen hautagaiak aukeratzeko irizpidea. Erreferentziazko pertsonak aintzat izatea, horrela, ahalik eta lankide gehien mobilizatu ahal izateko, *Labor Notes* metodologian nabarmendutako beste elementu bat da. Irismen ahalmena maximizatzeko, gomendagarria dela lan ekipoa lan-zentro, enpresa edo sektoreko departamentu edota txanda ezberdinetako kideez osatzea. Gainera, horrekin batera, talde horiek erreferentziazkoak diren pertsonekin osatzea.

Langileek beraien bidean erabakiak hartu eta aurrerapausoak egin ahala, enpresak hauteskunde sindikalak zapuzteko ahaleginak egin zituen, langileei presioa egin eta mehatxuak erabiliz.

“Enpresak hauteskunde sindikalak zapuzteko ahaleginak egin zituen, langileei presioa eginez eta mehatxuak erabiliz”. Manu

Langileak estutzearekin batera, CECOSAtik UGT sindikatuko zerrenda bat sartzen saiatu ziren. Egun ELAko ordezkaria den Elias estrategia horretan engainatzen saiatu ziren:

“UGTko zerrenda osatu nahi zuten, biltegian gurekin lan egiten duen ekipo arduradun baten bidez. “Mando” baten bidez. Hain zuzen, ELAra jo aurretik, UGTkoekin bildu ginenean hartu ninduen pertsona bera saiatu zen ni neu ere UGTko zerrendan joan nendin. Horretarako nire ELAko hautagaitzari uko egiteko gutun bat eskaini zidan. UGTko hautagai zerrendan zeuden langileengana gerturatu nintzen eta horrela jakin nuen, engainatuta jarri zituztela zerrendan. UGTko mando hark, paper batean sinatzeko eskatu zien berari sostengua emateko. Baina jakin gabe, beraien hautagaitza propioa sinatzen ari ziren”. Elias

“‘Mandoak’ esan zien ‘sina ezazue neu aurkezteko,’ eta sinatzen zuten heinean hautagaien zerrendan sartzen zituen. Buruzagitzaren morroi bat zen”. Asier

Engainuaz jabetu ostean, UGTren zerrenda inpugnatzea mugimendu giltzarria izan zen. Langileek ELA sindikatuaren babesarekin batasuna mantendu zuten eta hauteskundeak arrakastaz burutu zituzten 2023ko ekainean: ondo antolatuta eta parte hartze handiarekin. ELAk gehiengoa lortu zuen: aukeratu ziren bederatzik ordezkarietatik, sei ziren ELAkoak, eta gainerakoak 3ak LABekoak.

Era berean, hauteskundeak langileen eta sindikatuko arduradunaren arteko ezagutza sakontzen lagundu zuen. Hauteskundearen egunean, propaganda banatzeko aukera izan zuten, horrela, langileen artean ELA ezagutu arazteko. Baina era berean, sindikatuarentzat ere aukera paregabea izan zen lan zentroari buruz informazio gehiago eskuratzeko:

“Une horretan plantillari buruz ezer gutxi genekien sindikatutik. Enpresan antolatu ahal izateko lehen pausua izan zen”. Maialen

Antolakuntzan aurrera egiteko, ezinbestekoa da lan zentroko langileen egoera, beharrak eta kezkek ondo ezagutzea. *Labor Notes* metodologiak ere azpimarratu egiten du honek sindikalizazioan duen garrantzia.

5 Afiliazio nahikoa izateko beharra

Ordezkariek oso hasieratik erakutsi zuten gatazka grebara eramateko gogoia. Maialenen ikuspuntutik, hauteskundeak egin berritan, oraindik ere oso afiliazio txikia zegoen, eta hain afiliatu gutxirekin grebara jotzeak bazituen aintzat hartu beharreko arriskuak.

“Grebaz hitz egiten genuenean, Maialenek harrituta begiratzen gintuen, 12 afiliatu baino ez ginelako”. Elias

“Hamabi ere ez zineten oraindik!”. Maialen

Talde lana ezinbestekoa izan zen, bileraz bilera Maialenek zereginak banatzen zituen ordezkarien artean eta hauek gogor lan egiten zuten afiliazio gehiago lortzeko.

Hauteskundeak egin eta handik bi hilabetara izan zuten lehen bilera enpresarekin. Enpresako arduradunek ez zituzten seriotasunez entzun langileen eskariak, biltzarretan jorratutako berberak izan ziren. Ogitartekoa jateko atsedendia eta hogeita minutu horiek aste librean berreskuratzeko eskakizuna, gehiegizko produkzioa... Egun hartan barre egin zieten sentipenarekin atera ziren ordezkarriak bileratik. 2023ko udazkenean, bigarren bileran, tratua mespretxuzkoa izan zela kontatzen dute.

“Tuntun gisa tratatu gintuzten”. Manu

“Oso erradikalak ziren denean. Eskatzen genuen guztia zen bideraezina. Ez gintuzten mehatxu gisa ikusten.” Elias

“Enpresak aktarik ere ez zuen jasotzen”. Maialen



Bigarren bilera honekin ordezkariak inoiz baino argiago zuten grebara jotzeko beharra, ez baitzuten ikusten beste biderik lan baldintzak hobetu ahal izateko. Praktika sindikal honetan aldibereko bi prozesu jarri behar dira balioan. Alde batetik, ordezkari eta langileen motibazioa grebara jotzeko. Bestetik, afiliazioan eta antolakuntzan pausu sendoak emateko beharra. Zalantzarik gabe, batak bestearen beharra du, eta gainera, batak bestea indartzen edo elikatzen du.

“Enpresarekin bigarren bilera izan ostean Maialen-ekin elkartu ginenean, garbi esan genion grebara jo behar genuela. Barre egiten zuen”. Elias

“Bai, nik hasierak esan nien aurrera egin behar genuela grebarekin, baina horretarako ondo antolatu behar genuela. Sindikatuak ez dio grebari ezetz esango. Baina ez genekien grebak zenbat iraungo zuen, ezta zenbat langilek eutsiko zuten ere. Erresistentzia kutxaz baliatu ahal izateko, afiliazioa funtsezkoa zen”. Maialen

6 Grebarako aldarrikapenak

Grebara joan aurretik aldarrikapenak ondo landu beharra zegoen. 2023ko udazkenean gaude, eta azaroaren 30ean greba feministan parte hartzera deitzen zuen ELA sindikatuak. Oso kuriozoso da, greba feminista lantzeko CECOSAn antolatu zen asanblanda bat baliatu izana, CECOSAKoekin greba propiorako edukiak fintzeko. Grebara jotzeko bazituzten hainbat aldarrikapen, baina langileen egoera prekarioaz jabeturik, aldarrikapen gehiago gehitzeko aprobetxatu beharra zegoen:

“Betiko hiru aldarrikapenak, 20 minutuko deskantsua, produkzioa murriztu eta egutegiarekin lan egiteko eskaria ziren, aste librea errespetatuz. Horrekin joko genuen grebara, baina gehiago eska genezakeen. Soldatak oso baxuak ziren 16.500 ingurukoak, eta gauez eta jaiegunetan lan egiteagatik ordainsariak ere baxuak ziren”. Maialen

“Igande guztietan egiten dugu lan. Eta musutruk ateratzen zaie. Eta gainera, aste librean ere lan egiteko presionatzen gaituzte”. Manu

Lanketa hori eginda, soldaten igoera eta gehigarrien ordainketa justuago bat ere aldarrien artean sartu ziren.

“Enpresa honek ez zuen oraindik ibilbide sindikalik. Sindikatutik oraindik ez genuen ondo ezagutzen hango errealitatea ere. Ari ginen gerturatzen, nominak begiratzen, baina oraindik gauza askori buruz ezjakinak ginen. Baina bost eguneko greba egitea erabaki genuen. Orduan, afiliazio orriak iristen hasi ziren”. Maialen


7 Grebarako data eraginkorrenak

Greba egunak aukeratzea estrategikoki garrantzitsua zen. EROSKIrentzat produkzio handieneko egunak, jaiegunen aurrekoak izan ohi dira. Elorrion, Euskal Herri osoko EROSKI saltokiak hornitzen dituztenez, jai egunak baino egun batzuk lehenago biltokia geldituz gero, egoera konplikatu da EROSKIrentzat.

“Urtean data jakin batzuetan, produkzioa handiena da. Abenduan gabon aurreko egunetan, aste santuko oporren aurretik, eta udako oporren hasieran. Egun horietan geldituz gero, ondo izorratzen duzu EROSKI”. Asier

Gabon bezperatan EROSKIren saltokien horniketa oztopatzeko, greba aurretik egin beharra zegoen. Horrela, bost eguneko greba abenduaren 11tik 15era egitea erabaki zuten, abenduak 24ko egunetan, saltokietan hornidura falta zedin. Lan txandak zirela eta, 7 egunerako deitu ordez, 5 egunerako deitzea erabaki zen, langile batzuek soldataren zati handiegia galdu ez zezaten.

“Atzera begira akaso akatsa izan zen. Hasieratik greba mugagabea deitu genezakeen. Baina beldurra zegoen, eta ez genekien plantillak erantzungo ote zuen. Hemen gaudenok (ordezkariak) konbentzituta geunden aterako zela, baina...”. Elias



8 Enpresaren — jazarpena eta mehatxuak

Enpresak hamaika estrategia erabili zituen langileak beldurtu eta jazartzeko. Langileek lehen pertsonan pairatu zituzten presio eta mehatxuak enpresaren aldetik:

“Grebaren hasieratik, enpresak presio handia egin zigun. Beldurtzeko asmoz, mehatxu egiten ziguten gure lanpostua arriskuan zegoela esanez. Horrek beldur handia sortu zuen langileen artean, baina ELA sindikatuaren babesarekin, gure erabakia mantendu eta grebarekin jarraitu genuen”. Elias

Grebaren datak enpresari jakinarazi zizkiotenean, produkzio handieneko egunak aukera zirela ikusita, enpresak gogor erantzun zuen.

“Telefonoz deitu ninduten. Ea nola egin nahi genien hainbeste min. Ez da min egitea, presioa egitea baizik. Enpresak guk nahi duguna egin dezan, modu bakarra data honetan egitea da. Urtarrilean egiten badugu, noski, ez dugu ezer egingo. Horixe esan nien”. Elias

Hori gutxi ez bada, grebarako egun gutxi falta zirenean, lan txanda bakoitzean, biltegian, CECOSAKo ordezkariet lehenengo eta langileei gero, trikimailua egin zieten.

“Palet-ekin bete zuten biltegia CECOSAKo langileei sarrera oztopatzeko. Barruan, EROSKIko kide direnak bildu zituzten. Bost jefe ere bazeuden, eta orduan ordezkariet dei egin ziguten gerturatzeko. Negoziaketaren zein unetan galdu ote genuen komunikazioa leporatzen ziguten. Erasotu egiten gintuzten. Esan genien hitz egiteko komite osoa egon behar zela. Gero gainerako langileei deitu zieten, eta gu errudun izan ginela konbentzitzen saiatu ziren. Eta ez zieten sinetsi”. Asier

“Lehenbizi EROSKIko kide direnak gure kontra jartzen saiatu ziren. Ostean ordezkari garenok presionatzen saiatu ziren. Ni deitu nindutenean, zera esan nien: ez zarete gai izan mahaigainean gozokitxo bat jartzeko ere. Ez zeniguten ezertxo ere eskaini, “tori” esan, gu horrekin langileengana joan eta “badugu zerbait” esateko”. Elias

Ordezkariek azaltzen digute, plantillako langileak, greba prozesuarekin bat egin da zetozela. Enpresak grebalariak beldurtzeko eta desmobilizatzeko hainbat saio egin zituen. Langileak banan-banan deitu zituzten eta greba bertan behera uzteko konbentzitzeko ahaleginak egin zituzten. Gainera, grebalarien artean zalantzak eta beldurra sortzeko mezuak zabaltzen zituzten. Biltegia palet-ekin oztopatu zuten egun berean, enpresak, ordezkariak estutu ostean, langileak estutzera joan zirenean, egiaztatu zen bezala:

“Ordezkarien ondoren, lankideei deitzen diete. Nire txandakoei deitu zitetenean, bi afrikar lagun, atera egin ziren esanez: gure ordezkariak esaten badute hau horrela dela, ba kasu egingo diegu, eta greba egingo dugu. Zuek gu esplotatzen ari zarete. Nagusiek lankideak horrela ikusi zituztenean, joan egin ziren...”. Elias



Horretaz gain, grebaren aurreko egunetan, langile berriak kontratatu zituzten. Horrela, plantilla greba prestatzen ari zen bitartean, langile berri hauek trebatu zituzten greba egunetan ekoizpena bermatzeko. Are gehiago, abenduaren 11 baino lehen, lana aurreratu zuen enpresak. Alegia, greba egunetan EROSKIko biltegiak hornitzeko egin beharko liratekeen lanak egin arazi zizkieten. Honela azaldu digute:

“Etiketa batzuetan, produktuak zein saltokirako diren, eta zein datarako diren jartzen du. Konturatu ginen, abenduko zubiko egunetan, abenduak 16rako kutxak egiten ari ginela. Alegia, gu geu ari ginen gure lana aurreratzen”. Asier



“Langileek legitimitatea irabazi dute”



Janire Ornés · ELA-Zerbitzuak federazioko arduraduna

ELAko egoitzara etorri zirenean bokata jateko atsedena berreskuratzea zen haien aldarrikapen handietako bat. Hortik abiatuta, oso denbora gutxian lortu dute antolatu, aldarrikapen sendoagoekin greba egin eta akordio oso on bat lortzea. Oso esperientzia polita izan da, eta lan baldintzen hobetzearekin batera, bi lorpen oso garrantzitsu eskuratu dituzte.

Batetik, atal sindikala non kokatua utzi duen. Bost egunetako grebarekin lan baldintzen hobekuntzan egindako jauziak, balio izan die, greba tresna baliagarritzat ikusteko. Azken batean, grebaren helburu nagusia horixe zen: EROSKIrentzat zein CECOSArentzat lan egin, aplikatutako hitzarmena aldatzea lortu edo ez, langile hauek prekaritatetik atera eta lan baldintzak hobetzea. Bizipen honek, hurrengo negoziaketarako gogoz eta motibazioz bete ditu. ELA n afiliatutako gehienek, afiliazio konpromisoa mantendu dute, sindikatua tresna oso eraginkorra dela barneratu duten heinean.

Konfiantza handia dute sindikatua-
rengan.

Bestalde, grebaren prozesuari esker, enpresaren aurrean legitimazioa lortzeko balio izan die. 2023ko ekainean hauteskundeak egin ostean enpresarekin izandako bi bileratan mespretxuz tratatu zituzten eta ELAko ordezkariak, gutxietsita sentitu ziren. Garaipen honekin, ordezkarien legitimitatea indartuta atera da.

Biltzarrak zailak izan ohi dira, baina kasu honetan, hizkuntzak are gehiago konplikatzen zuen guztia. Grebara joan aurretiko biltzarretan, esku-orriak lau hizkuntzatan atera genituen: euskaraz eta gaztelaraz gain, ingelesez eta frantsesez. Deigarria izan da ikustea, zelako naturaltasunarekin antolatu diren hizkuntz komunitate edota jatorrizko herrialdeka. Hori ere izan da arrakastaren giltzetako bat: talde-txoka antolatu dira, beti zegoen bat gaztelaraz hobeto moldatzen zena eta gero komunitatekoei transmitituko ziena.

9 Gabon bezperan, biltegia geldi

Abenduaren 11tik abenduaren 15era bitartean, CECOSA-ko langileek greba egin zuten. Grebaren lehen eguna tentsio handikoa izan zen. Langileek goizean goizetik antolatu zituzten piketeak, Elorrioko biltegian eta sarrera nagusian. Enpresak lehenengo egunetik bertatik presioa egin zuen greba bertan behera uzteko, baina langileek tinko eutsi zioten.

“Grebaren lehen eguna kaotikoa izan zen. Goizeko lauretan hasi ginen piketeak antolatzen, eta enpresak kamioiak sarrera alternatiboetatik sartzen saiatzen zen. Piketeetan, langile guztiok batu ginen eta elkarri animoak ematen genizkion. Enpresaren presioari aurre egitea zaila izan zen, baina gure helburua argi genuen: lan-baldintzak hobetzea”. Elias

Langileek lehen egunean elkartasun eta batasun handia erakutsi zuten, eta piketeetan egon ziren goizeko lehen ordutik iluntzera arte. Gogora dezagun txandaka lan egiten dutela, eta horretxegatik, garrantzitsua izan zen txanda bakoitzaren hasieran piketeak ondo antolatzea.

“Grebara joateko ziur ote geunden galdetu ziguten. Itxaron eta ikusiko duzue, esan nien. Ziur nengoen afrikar komunitateko kide guztiak greba egingo zutela. Eta halaxe izan zen. %92ko jarraipena izan zuen grebak. Behin-behineko kontratua zuen langileren batek ere egin zuen greba. Pronostiko guztiak hautsi genituen”. Elias

Langileen batasuna eta erresistentzia nabarmenak izan ziren: biltegia gelditzea lortu zuten eta greba aurrera eramateko determinazioa erakutsi zuten.

“Greba egitea, ez da lanera ez joatea. CECOSAko langileek, greban aktiboki hartu zuten parte, piketeetan, pankartekin...”. Maialen

Inplikazio eta antolakuntza handi hori, langileen nekean sentitu ahal izan zen. Bat datoz ordezkariak greba egunetako nekea nabarmentzerako orduan.

“Goizeko lauretan, piketea biltegitik sarreran goizeko 8ak arte. Oso gogorra izan zen. Hotz handia egin zuen, euria ari zuen. Abenduko asterik gogorrena”.

*tokatu zitzaigun. Greba aste horretan, lanean baino nekatuago
amaitu genuen. Izugarria". Elias*

*"Kide askok esaten zidaten nahiago zutela kutzekin lanean jardun.
Itogarria izan zen". Asier*

Nekearekin batera, sentimendu anitz bititu zituzten lehen egunetik: beldurra eta urduritasuna, ilusioa eta harrotasunarekin nahastuta. Modyk, elkarrizketa egunean oso adi entzun zituen gainerako ordezkariak esandakoak eta sarri baiezkoa egiten zuen buruarekin. Agian hizkuntzarengatik, une gutxitan hartu zuen hitza, Luckyk bezala. Testigantza honetan adierazi zuena, oso adierazgarria da:

"Urduritasun handia zegoen". Elias

"Urduritasuna ez, egin behar genuena zen, gauzak behar bezala egiteko". Mody





Egun horien intentsitatea, enpresaren jarrerak areagotu baino ez zuen egin. Izan ere, greba egunetan ere, enpresak ahal zuen guztia egin zuen greba ahuldu edota indargabetzeko. Greba ahultzeko ahaleginak egin zituen enpresak. Bi testigantza hauek esanguratsuak dira oso:

“Lehen eguna izugarria izan zen. A ze jendetza batu ginen! Enpresa gu engainatzen saiatu zen arren! Langileak ate jakin batetik sartu ohi gara biltegiara. Garraio lanak egiten dituztenak beste ate batetik sartu ohi dira, kamioi gidariak.

Atean batu ginenean, ez genuen atera inor hurbiltzen ikusten. Antza, lanera sartzen zirenak, kamioilarien atetik ari ziren sartzen. Azkenean, bi atetan jarri behar izan ginen”. Asier

“EROSKIk langile asko ditut atal administratiboan, 800 bat inguru. Langile guzti horiek telelana egiten jarri zituzten”. Elias

Grebari ikusgarritasuna kendu eta oztopoak jartzeaz harago, enpresak zuze-nean jazarri zituen langileak, grebarik egin ez zezaten:

“Bigarren egunean, enpresak presioa areagotu zuen. Langileei banan-banan deitu eta greba uzteko konbentzitzen saiatzen ziren. Gainera, enpresak jende berria kontratatu zuen, greba desmobilizatzeko. Baina guk batasuna eta elkartasuna mantendu genituen, eta piketeak antolatzen jarraitu genuen”. Asier

Ohikoa den beste iruzur bat, produkzio desbideratzea da. Hala, CECOSAk biltegian, produkzioa beste biltegi batzuetara bideratu zen, grebaren eragina leundu asmoz.

“Greba hasita zegoela, egun batean Gasteizera joan ginen, CECOSAk beste biltegi bat du han. Hango kide batek esan zigun, goraino zeudela, ez zela beste palet-ik kabitzen”. Asier

“Ikuskaritzara eraman genuen, baina ikuskaria oportetan zegoen. Bere ordeztu beste bat bidali zezaten eskatu genuen, baina ezer ez”. Maialen

Oztopoak oztopo, langileek hainbat ekintza antolatu zituzten haien aldarrikapenak publiko egiteko eta presioa egiteko. Grebaren hirugarren egunean, asteazkenean, EROSKIrekin bilera zuten Bilboko Iberdrola dorrean. Hori aprobetxatuz, etxe-orratzaren kanpoaldean elkarretaratzea egin zuten.

“Iberdrola eraikinaren kanpoaldean biltzea erabaki genuenean, argi genuen gure mezua ahalik eta jende gehienengana iritsi behar zela. ELA sindikatuaren laguntzarekin, ekintza antolatu genuen eta komunikabideei jakinarazi. Gure helburua zen gure aldarrikapenak eta grebaren arrazoiak publiko egitea”. Elias

Eskuetan pankarta eta kartelak zituztela, hainbat hitzartze egon ziren, langileen egoera azaldu eta lan baldintzen hobekuntza aldarrikatzeko.

“Iberdrola eraikinaren kanpoaldean biltzea oso hunkigarria izan zen. Pankartak eta kartelak genituen, eta gure aldarrikapenak ozen eta garbi adierazi genituen. Atmosfera kargatua eta emozioz beterikoa zen. Elkartasuna izan zen nagusi”. Asier

Ekintza honek oihartzun handia izan zuen komunikabideetan. Elkarretaratzeak grebaren inguruko informazioa publikoari helarazteko eta enpresaren aurrean presioa egiteko balio izan zuen. Baina ez bakarrik kanpora begira, barrura begira taldea indartzen ere lagundu zuen:

“Iberdrola eraikinaren kanpoaldean egindako elkarretaratzeak gure batasuna eta elkartasuna indartu zituen. Elkarrekin borroka egitearen garrantzia eta gure eskubideak defendatzeko prestutasuna erakutsi genuen. Ekintza honek gure arteko konfiantza sendotu zuen, eta grebaren arrakasta lortzeko indarra eman zigun”. Manu

Bileran, EROSKIko arduradunak oso gutxi hurbildu ziren grebako aldarrikape-netara: ezezko borobila Bizkaiko Elikadura Hitzarmena aplikatzeari, ezezkoa eguneroko 20 minutuko deskantsuari... Enpresak jaiegunetako gehigarriei buruz zerbait eskaini arren, langileei ez zitzaien inolaz ere nahikoa iruditzen. Egun horretan, bilera eta elkarretaratzea amaitu ostean, langileek biltzarra egin zuten ELAren Bilboko egoitzan. Langileek deituta zeuden bi greba egunekin jarraitzeaz gain, beste bost eguneko greba deitzeko aurre-abisua egitea adostu zuten: abenduaren 20tik 24ra hain zuzen ere. Honekin lotuta, komitean gehiengo izateak duen garrantzia gogorarazi digu Maialenek, gehiengorik ezean, hitzarmena egun horretan bertan sinatuko zitekeela esanez:

“Guk gehiengo izateak, greba ondo antolatzea ahalbidetu zigun, erabakiak hartzeko orduan, gure ordezkariak pisu handiagoa zutelako. Piketeak, manifestazioak... Era berean, gehiengorik ezean, akordioa 19an sinatu ordez, abenduaren 13an sinatuko zitekeen...”. Maialen

Tentsioa gora zihoan, eta langileek geroz eta jazarpen handiagoa pairatzen zuten enpresaren aldetik. Laugarren egunari buruzko testigantza batek horrela islatzen du:

“Osteguna zen, enpresak mehatxuak areagotu zituen eta greba bertan behera uzteko presioa egin zigun. Baina guk argi genuen eta gure helburuak, eta batasuna eta elkartasuna mantendu genituen”. Manu

Ostegun horretan bertan, arratsaldean, Abadiñon EROSKIk duen merkatalgusetatik abiatuta, Durangoko Andra Mari elizaraino protestaldia antolatu zuten. Mobilizazioak gatazka eskualdean gizarteratzeko eta presioa areagotzeko balio izan zuen.

Grebaren azken egunaren ondotik, abenduaren 18an, sindikatuak proposamen bat bidali zion enpresari. Horren ondotik, EROSKIrekin bilera luzea izan zuten, gaueko hamarrak arte. Negoziazioa gogorra izan zen: edozein hurbilketa zegoenean, bilera eten egiten zuten proposamenak hausnartu ahal izateko.

Gau eta jaiegunetan lan egiteagatiko ordainketa gehigarrien inguruan halaxe gertatu zen.

“Oso bilera luzea izan zen. Toma y daca denbora guztian. Atsedenaldea ematen zigutela. Gauak ordainduko zituztela. Jai-egunak hau eta beste. Baina Hitzarmen aldaketari, ezezko borobila”. Asier

“Ezezko borobila. Orduan soldata igoeran tematu ginen. Hitzarmen aldaketarik ez bazen, egon zedila igoera handi bat. Berez, gure helburua hitzarmenaren negoziaketa hona ekartzea da. Euskal Herrira, Bizkaiara eta CECOSara. Bestela langileek ez dute aukerarik Saltoki Handietako hitzarmena negoziatzeko, ezta sindikatuak ere. EROSKIren abokatuarekin, etengabe ibili ginen horri bueltaka eta ezetz. Orduan, hortik jo genuen: hitzarmen aldaketarik ez bada, egin dezagun Greba amaierako Akordioa, eskatzen dugun gainontzekoa jasoko duena, eta 2025 arte indarrean egongo dena. 2025era arteko indarraldiak aukera ematen die langileei, nahiz eta Saltoki handietako hitzarmena indarrean egon, berriz ere negoziatzeko”. Maialen



10 Greba akordioa

Bilera luze hartatik, greba-akordioarekin ateratzea lortu zuten azkenean. Akordioak langileen aldarrikapen gehienak barnebiltzen zituen eta abenduak 20-25eko greba deialdia bertan behera uzten zuen. Lorpen nagusiak, honela laburbildu daitezke:

- Soldatan %22ko igoera jasotzen du. Hau da, 2025ean 22.618,37 euroko urteko soldata bermatzen du.
- Lanaldi murrizketa urteko 1.770 ordutik 1.700 ordura. Lanaldi jarraituan lan egiten duten pertsonak egunean 20 minutuko atsedena hartu ahal izango dute lan denbora gisa zenbatuta.
- CECOSAK langileen antzintasuna aitortuko du, eta kontzeptu horretatik eratorritako zenbatekoak ordainduko ditu. Hori urtean 255,79 eta 481,77 euro arteko zenbatekoa izan liteke, enpresan sartze dataren arabera. Antzintasunak berebiziko garrantzia du langileentzat. Izan ere, langile asko finkoak izan arren, behin-behineko kontratatuarekin ibili ziren lanean. Akordioak, lan egindako denbora tarte guztien aitortza barneratu zuen, eta horrek, langile askorentzat, laurtekoak eta bosturtekoak suposatu ditu.
- Biltegiatze lanak dakarren ahalegin fisikoa murrizteko beharrezko baliabide mekanikoak ezartzea adostu dute. Lan-baldintzak ankerrak dira maila fisikoan eta elementu aldarrikatzaile garrantzitsua da lanaldi luzeak eta higadura fisiko handia jasaten dituzten langileentzat. Akordioaren arabera, sei hilabeteko epean enpresak ez badu planik egin eta beharrezko neurriak hartu, enpresak produkzioaren maila pandemia aurreko zenbakietara murriztu beharko du.

“Produkzioa jaistearekin batera, biltegiatze-lanak dakarren esfortzu fisikoa murrizteko beharrezkoak diren baliabide mekanikoak ezartzea erabaki da”. Asier

Janire Ornés federazioko arduraduna da sindikatuan, eta gertutik ezagutu du gatazka. Oso balorazio positiboa egin du akordioarekin lortutakoari buruz:

“Akordioa bi urterako da, 2024rako eta 2025erako. Soldata mailan igoera handia da; 2025ean soldata 22.618,37 eurokoa izango da, hau da, %22,94ko igoera. Gainera, CECOSAk antzintasuna aitortuko du eta kontzeptu horri dagozkion zenbatekoak ordainduko ditu. Horrek, urtean 255,79 eta 481,77 euro arteko antzintasuna sorraziko du, enpresan sartu izandako dataren arabera”. Janire

Ordezkariek ere, balio izugarria ematen diote greba akordioari, eta garaipen handia izan dela jabetuta daude.

“Lortutako akordioarekin oso pozik gaude. Grebaren hasieran, gure helburuak argi genituen: lan-baldintzak hobetzea eta gure eskubideak bermatzea. ELA sindikatuaren laguntzarekin, gure aldarrikapen nagusiak lortu ditugu. Akordioak ekoizpen-erritmoaren murrizketa, atsedenaldien berreskuratzea eta gaueko txanden ordainsarien hobekuntza dakartza. Honek gure osasuna eta lan-baldintzak nabarmen hobetuko ditu”. Elias

“Akordioa guretzat garaipen handia izan da. Lan-karga handia eta atsedinaldi faltaren ondorioz, gure osasuna kaltetua zegoen. Orain, ekoizpen-erritmoa murriztuko da eta atsedenaldiak berreskuratuko ditugu. ... Honek guztiak gure lan-baldintzak asko hobetuko ditu eta gure eguneroko lana errazagoa izango da. ELA sindikatuaren laguntza ezinbestekoa izan da emaitza hau lortzeko”. Asier

Langileek lortutako akordioarekin pozik dauden arren, ordezkariak uste dute gehiago lor zitekeela. Enpresaren presioa eta jazarpena handiak izan dira, langileen artean beldur handia eragin zuen:

“Lortutako akordioarekin pozik nago, baina beti dago gehiago lortzeko aukera. Greban zehar, gure helburu nagusiak bete ditugu, baina badakit oraindik hobekuntza gehiago lor daitezkeela. Hala ere, egoera kontuan hartuta, uste dut emaitza ona lortu dugula eta horrek motibazioa ematen digu etorkizunean gehiago borrokatzeko”. Elias

“Egia da lortutako akordioak gure lan-baldintzak hobetzen dituela, baina uste dut gehiago lor zitekeela. Enpresaren presioa eta jazarpena handiak izan dira, eta horrek gure eskaerak apaltzera eraman gaitu. Hala ere, lortutakoa ez da gutxietsi behar, eta hurrengo grebetan edo negoziazioetan gehiago lor dezakegula sinesten dut”. Asier

Edozelan ere, bat datoz lortu dutena izugarria dela esaterakoan, eta denbora tarte txikian egin duten bide sindikala goraiatzeko orduan. Haien ekipoa, plantillako langileekin batera, indartsu eta jabetuta ikusten dute etorkizunean ere sindikalizazioan eta lan baldintzen hobekuntzan aurrerapausoak eman ahal izateko. Horrekin lotuta, oso positibotzat jotzen dute akordioaren iraupena. Horrela azaldu zigun Janire Ornés, ELAko zerbitzuetako batzorde iraunkorreko kideak.

“Gure jendea oso pozik dago. Euren borroka eta kohesioari esker astebeteko grebarekin asko lortu dutela baloratu dute. Hau hasiera besterik ez da. Bi urte barru berriro elkartu beharko gara hitzarmen berria negoziatzeko, eta enpresak badaki nor garen eta ez garela ahoberokerietan arituko. Badakite plantilla batuta, antolatuta eta borrokarako gogoz dagoela. Eta badakite, halaber, langileek ELA bezalako sindikatu baten babesia dutela”. Janire

“Hala ere, nik uste jendea jabetu egin da, lortutakoa handia dela. Sentipena dut orain, langileok indarra dugula, eta beldurrik ez dugula. Etorkizunean berriz negoziatzeko edo beharko balitz grebara joateko, askoz ere prestatuago gaude”. Elias

Labor Notes metodologiara jotzen badugu, aldarrikapenen hautaketan garrantzitsua den elementu batekin topo egingo dugu. Aldarrikapenak, antolakuntza indartzeko duten potentziala. Metodologia horrek teorikoki azaltzen duen moduan, greba honetan ere antzeman dugun ezaugarria da. Hau da, aukeratutako aldarrikapenak, baliagarriak izan dira, ez soilik antolakuntzan aurrerapausoak emateko, baita erreferentziazko pertsona gehiago aurkitzeko, lankide gehiago antolakuntzara batzeko, pertsona gehiago afiliatzeko, eta, azken batean, kolektibo sendotzeko.

“Oso esperientzia polita izan da”



Maialen Hidalgo - ELA-Zerbitzuak Gernika-Durango eskualdean

“130 langile gara eta oso gaizki gaude. Denok afiliatu nahi dugu”. Eta nire buruari esan nion: zer gertatzen ari da hemen, fitxatuta ez dugun 130 langileko enpresa bat Elorrion. Bi ziren etorri zirenak. Antolatzen hasi behar genuen.

Maialenek inpresio honekin hasi zuen CECOSAKo grebaren kontakizuna. Urtebete baino gutxiago zeraman sindikatuan baina hilabete horietan greba bat baino gehiagotan ibiltzea egokitu zitzaion. Durangoko polikiroldegiko greba du gogoan. “Zortzi hilabeteko greba izan zen hura, baina oso ezberdina izan zen. Hasteko, atzean zegoena udala zen. CECOSAKen kasuan berriz, gidatzen zuena EROSKI zen. Udal kiroldegi bat oso garrantzitsua da, baina EROSKIren almazena gelditzeak inpaktu askoz handiagoa du. CECOSAKen kasuan, argi ikusi zen zenbat diru dagoen atzean eta zenbat lan ateratzen duten egunero bertako langileek”.

Elkarrizketan zehar gertutasuna sumatzen da CECOSAKo langileen eta Maialenen artean. “Hauek egin dutena oso gauza handia da. Urtebetean, bi

afiliatu izatetik, eta ibilbide sindikalik ez zuen enpresa bat izatetik begira noraino iritsi diren. Ordezkaritzan gehiengoa dute, plantillaren erdia afiliatuta dago eta greba baten esperientzia daukate”.

Bide honetan Maialenek bereziki bi elementu jarri ditu erdigunean. Batetik, ordezkarien hautagaitza zehazterako orduan langileek jarritako baldintza bat. Plantillan, migratutako langileak gehiengoa ziren eta jatorri eta komunitate desberdinetakoak. “Argi ikusi zuten, komunitate guztiak ordezkaturata egon behar zutela, eta hori funtsezko hautua izan zen”. Bestetik Maialenek balioan jarri du sindikatutik erreminta guztiak eskura jarri izana. Hala, Erresistentzia Kutxarekin batera, dena aktibatuta zen: zerbitzu juridikoak, Komunikazio arloa gatazkari jarraipena eta oihartzun mediatikoa emateko, federazioko jendea...

Bide honetan langileek asko ikasi dutela azpimarratu du, baina berak ere, asko ikasi duela azaldu digu “Oso esperientzia polita izan da, baita alde emozionalean ere. Hori bai, lehertuta bukatu genuen”.



11 Garaipenerako tresnak

Gatazka honen eta greba akordioaren balioa ezin da ulertu azken bi urte hauetan CECOSAko langileek egin duten bide sindikala ezagutu gabe. Balio handia du, ia afiliatorik ez zuen lan-zentroan, hain denbora gutxian noraino iritsi den ikusteak. Grebara iristeko, ezinbestekoak izan diren pausuak eman dituzte, eta den dena, lehen aldiz egin dute.

“Gauza asko egin ditugu lehen aldiz”. Elias

Urrats guzti horietan, antolakuntzarako eta, beraz, garaipenerako funtsezkoak diren tresna guztiak martxan jarri dira: afiliazio kopuru nahikoa, ordezkaritza nahikoa, zerbitzu juridikoen edo arlo desberdinen inplikazioa, trebakuntza, erresistentzia kutxa...

“Sindikatuaren erreminta desberdinak aktibatu ziren. Erresistentzia Kutxarekin batera, dena aktibatu zen”. Maialen

Aurreko ataletan jorratu ditugu tresna hauetariko batzuk. Afiliazio kopuru edota ordezkartza nahikoa izatea, esate baterako, grebara jo aurreko faseetan mugarri izan dira. Ordezkariek eta Maialenek ere, behin baino gehiagotan egin ziguten azpimarra, greba deialdira ahalik eta sendoen iristeko bai afiliazioan eta bai ordezkartzan urratsak eman behar zirela:

“Hasieran Maialeni esan genionean greba egitea genuela buruan, aurpegia jarri zitzaion urdin-berdea. Maialenek guri begira “baina ziur al zaudete?” galdegin zigun”. Elias

“Hasiera horretan oso afiliazio txikia genuen. Eta ordezkari sindikalik ere ez. Ordezkarri gabe posible da greba egitea, atal sindikalaren bidez, baina askoz ere konplexuagoa da. Noski, grebarekin aurrera joango ginela esan nien baina aurretik prozesu bat egin behar genuela. Dena izango zela askoz errazago ordezkartza lortzen bagenuen. Hasiera horretan bi afiliatu baino ez zeuden!”. Maialen

CECOSAko ordezkariak trebakuntza saio desberdinetan parte hartu dute eta oso eskertuta sentitu zirela baloratu zuen Maialenek. Luckyk ere hala azaldu zuen, sindikatura iritsi zirenean asko ikasi zuela.

“Hasteko ELAn ordezkari berri guztiei ematen diegun trebakuntzan parte hartu dute. Baina horretaz gain, nominei buruzko saioak ere egin ditugu. Baina batez ere, ikasi dute, hauteskunde sindikalei buruz guztia. Bilerak nola hobetu... Aktak jaso ere ez ziren egiten lehen bileretan. Eta guzti honetaz gain, lan osasuneko ikastaroak ere egin dituzte, eta asko gustatu zaizkie”. Maialen

“Gauza asko ulertu nituen ELAn sartu ginenean, trebakuntza desberdinak egin genituelako gure eskubideak eta beste hainbat gauzetaz ikasteko”. Lucky

Grebarekin lotuta dauden beste tresna garrantzitsu bat atal sindikalara eta sindikatuko arduradunaren arteko harremana da. Ordezkariek azpimarra egiten dute Maialenekin izan duten gertutasuna eta elkarrekiko duten konfiantzan. Asko baloratzen dute harremana bera eta egia da, giroan nabaritu egin zela elkarriketaren egunean.

Sindikatu arduradunaren eta langileen arteko harremanak, neurri handi batean baldintzatzen du lan zentro edo sektore baten sindikalizazioa. Zalantzarik gabe, arduraduna eskuragarri dagoela sentitzea, besteak beste, bilerak maiztasunez egitea, elkar entzutea, giltzarri izan dira prozesu horretan.

Bestalde, sindikatuaren beste arloekin izandako harremana ere goraiatu da. Zerbitzu juridikoei gatazkaren hasieran egindako kontsultez gain, sindikatuko komunikazio arloa ekarri dute ahora: kartelak egiteko, greba egunean bideo bat grabatzeko... Horretaz gain, argazkilari profesional bat kontratatu zuen sindikatuak greba egunetan argazki bilduma ikusgarria lortzeko.

Baina, ezbairik gabe, grebaren tresnarik berezkoena, erresistentzia kutxa da. Sindikatuko kide diren langile guztien hileroko kuotek elikatzen dute elkartasun tresna hau. Erresistentzia kutxa grebaren bitartez lan baldintzak hobetu eta onargarria den akordioa eskuratu arte eutsi ahal izateko funtsezko tresna da. Soldatarik gabe eta erresistentzia kutxarik ezean, nekez antola daiteke plantilla prekaritateari aurre egiteko, nekez sostenga daiteke greba bat, eta nekez lor daiteke baleko akordio bat. Ordezkariek honela sentitu dute bere ekarpena:

“Hauteskunde sindikalen prozesuan, enpresak hainbat trikimailu erabili zituen gure aurka. Adibidez, UGTk hauteskundeetan parte hartu nahi izan zuen, baina gu ELAren alde geunden. Erresistentzia kutxaren laguntzarekin, gure hautagaitza indartu eta hauteskundeetan garaipena lortu genuen. ELAk langileen interesak defendatu ditu eta lortutako akordioak gure lan baldintzak izugarri hobeto ditu”. Manu

“Erresistentzia kutxari esker, gure lan-baldintzetan hobetzeko hainbat hobekuntza lortu ditugu”. Elias

Tresna guzti hauek, langileen ekimena, konpromisoa eta konbentzimenduarekin batera, ezinbestekoak izan dira tamainako garaipena eskuratzeko. Akordioa sinatu osteko asanbladan langileek nolabait ospatu egin zuten, kalera atera, banderak hartu eta argazkiak eginez. Momentu horretan ospakizun handiagoarik egiteko indarririk ere ez zutela kontatu digute, grebak akituta utzi zituelako, baina badute gogo oterdu baten bueltako ospatzeko.

ELA sindikatuak argitaratzen duen Garaipenen Urtekarian, berea lekua izan zuen borroka honek ere. 2023ko alean, urte horretan lortutako 114 garaipen jaso ziren, “Antolatu, borrokatu, irabazi” izenburupean. CECOSAKo langileen bizipena ondo laburbiltzen du lelo horrek: ezer baino lehen antolatu egin ziren, elkartasunean borrokatu dute eta asko irabazi dute. Laugarren aditz bat gehituko nioke: indartu. Prozesu guzti honetan zehar, langileak indartuta atera direlako, aurrerantzean haien lan-baldintzak hobetu ahal izateko eta antolatuta egoten jarraitzeko.